

Altxotarrak, 20 urte Etxolaberriko minak zaintzen

■ Eñaut Agirre

Etxolaberriko minak 1916an itxi zituzten, urak bideetan egindako kalteek sarrerarik gabe utzi zutelako. Nagusiek izango zuten esperantza berriz fabrika martxan jartzeko, eta familia bat 20 urtez eduki zuten han, 1918tik 1938ra, fabrikako mantenimendu lanetan: *altxotarrak*.

Luis Marko da bederatzi senideetan zazpigarrena. 1927an Etxolaberrin jaioa, 11 urtez bizitu zen bertan. Aitortzen du, 1938an Epelera jaitsi zirenean, *hura poza!* hartu omen zutela. Oraindik gogoan ditu fabrika nola zen, eta nola funtzionatzen zuen.



Luis Marko Otxotorena

Gure gurasoak 1918an joan ziren minara, hiru umerekin. Mina geldirik zegoen ordurako, pare bat urtean, eta aita eraman zuten, guarda lanak egitera. Hara joan zirenean, bi lagun omen zeuden han: ordura arteko guarda eta mekanikoa. Gero, haiek alde egin zuten, eta gurea gelditu. Aitak probak egiten zituen fabrian: turbina eta ardatz nagusia martxan jarri eta dena mugitzen hasten zen: zintak, tolbak, errotak... ra-ra-ra-ra... Urak mugitzen zuen dena. Nik askotan ikusi nuen.

Aita zen fabrikako guarda eta askotan jartzen zuen martxan.

Etxolaberri, irteerarik gabe, uholdeen erruz.

Urak zerabilkiena, urak hondatu. Hori egin omen zitzaion Etxolaberriri. Hala dio Markok:

Uholde handiak izan omen ziren eta urak denak eramane: zubiak eta... bideak eta... Eta lehen justu-justu ari zenak, orduan, kiebra jo. Materiala ateratzerik ez bazen, alferrik zen fabrika. Bideak konpondu arte, itxi egin zuten. Nagusiak izango zuen esperantza berriz ere martxan jartzeko eta hargatik jarri zuen familia bat han, mantenimendu lanetan. 20 urtez egon ziren han, 1918tik 1938ra.

Bederatzi senideko familia: altxotarrak.

Jose Maria Marko (Lizartza) eta Anbrosia Otxotorena (Hernani, Ierola), hiru umerekin joan ziren minetara, 1918an, Goizuetatik; ume txikiena, jaioberria zuten. Azkeneko sei umeak han jaio ziren, minetako etxean (Benta Mudaz zuen izena). Luisek esan dizkigu denen izenak: *Zaharrena Dionisi zen* (1914), *bestia Paulina* (1916), *Joxe Krutz* (1918), *Fermin* (1920), *Bernardina* (1922), *Manuel* (1924), *gero ni, Luis* (1927), *Juanito* (1930), *eta gazteena, Javier* (1933). Orain, *ni eta Javier bizi gara.*



Benta Mudaz, minetako etxe atarian ateratako argazkia. Ezkerretik: Javier, Bernardina, Anbrosia, Juanito eta Jose Maria.

Marko, abizenez, baina auzoan, *Altro* dute izengoitia. Aitari jarritako izengoitia omen da, eta gero, familiari gelditu. Aitari '*Altro*' izena jarri zioten, eta gu *Altrokin* gelditu ginen. *Altzoko Haundia* ba omen zen, eta gurea berriz *txikia* zenez, burlaz jarri omen zioten '*Altro*'. Eta *Altrokin* gelditu.

Markotarrak edo *altxotarrak* ondo ezagunak dira Ereñotzun eta Hernanin, bertan geratu baitziren gehienak Etxolaberritik atera eta gero ere. Besteak beste, askorentzat da ezaguna Juanito *Altro* bertsolaria; makina bat bertso idatzi eta kantatua. *Juanitok* (1930-1998), nire aurreko anaiak, bertsotan asko egiten zuen. Boza ere ederra zuen hark! Baina plazatan ibiltzea ez zitzaion gustatzen. Tabernan gehiago; juergista xamarra zen. Bertso onak bazituela badakit. Bai izan ere. Oso-osorik ez dugu lortu, baina bertso zati bat bai, Juanito *Altrok* bere jaiotetxeari jarria. Florian Oiarbidek kantatu digu, Dionisiren semeak, Luisen ilobak:

*Ni bizi nintzan Hernanik duan
etxerik urrutinian
handik ez zegon ateratzerik
kotxian edo trenian
....
oinetakuak hausteko beldur
hanka hutsik gehienian*

Senide zaharrenak, soldadutza eta gero ezagutuak.

Arreba zaharrena "oinez hasterako" etxetik joana izango zela dio Luis Markok, eta oso gero arte, ez omen zuela ezagutu. Ez zaharrena bakarrik, lehendabiziko lau senideak gero ezagutu omen zituen. Inoiz ez ginen bederatzi senideak batera bizi izan han. Nik soldaduska kunplitu eta gero ezagutu nituen lehendabiziko laurak. Eta gehiago esango dizut: arreba zaharrena baino lehenago ezagutu nuen arrebaren nobioa! Latxekoa zen, Pepe, eta askotan joaten zen arrantzara hara. Dionisi garaiz atera omen zen Etxolaberritik, eta Villa Ave Marian neskame egon zen urte askotan; gainerakoak ere garaiz xamar atereak behar zuten. Pentsa, Manuel, beste anaia, 8 urterekin *Antxixtan* ardiekin egon zen, morroi. Jakina ba! Orduan horrela zen: jango bazen, zeozer egin behar-eta... Eta guk han zer geneukan ba, bi behiekin.

Lan asko ez genuen egiten.

Bi behi, oiloak, eta baratza. Horiek gobernatu behar izaten omen ziren etxean. Terrenorik ez, eta lan askorik ez omen zuten izaten. *Lan asko ez genuen egiten, terrenorik ez genuen eta! Eta jolastu egiten genuen. Senideekin jolastu. Bi behi genituen, Arantxaxabalen, amaren etxeok (Ierola baserria) utzitako terreno batean. Eta haiek gobernatu.*

Potajea eta kafea egunero, eta tarteka, dozenaren bat bokarta, Txilibitako Manuelok eramanda.

Eguneroko menua jakina izaten omen zuten: potajea. *Potajea egunero. Esnea ere bai. A, eta kafea ere bai; kafea txikoriarekin. Eta gainerakoan zer jango genuen ba? Tarteka dozenaren bat bokarta (antxo) behean senideren batek utzita. Txilibitako Manuelo joaten zen arraiarekin bertara. Potajea eta patata prejitua edo... hura zen hango otordua. Oilategia ba omen zuten, baina oilategiko ezer ez omen zen etxerako izaten. Oilaskoa jan garai hartan? Oilaskoa saltzeko izaten zen. Baratzean berdura pixka bat egiten omen zen, etxerako adina. Esango dizut: aza, tipula, baratzuria, tomatea... eta artoa, patata eta babarruna etxerako adina. Horiexek. Letxugarik eta ez. Letxugarik guk ez dugu gogoratzen.*

Amuarraiak, Mudatz-errekako genero preziatua.

Etxola-erreka edo Mudatz-erreka, preziatua izan da amuarraizaleen artean. Orain, eta lehen. Jose Maria Markok amuarraiak hazten omen zituen, jendeari emateko edo "*laguntzeko*". Ehiza egiten zen pixka bat, aita zenak bai, katagorriren bat edo, baina batez ere, arrantza. Amuarraiak aita beti edukitzen zituen etxearen azpian, errekan, kaja batean. Etxerako, baina batez ere, baten bati laguntzeko... Guri ere laguntzen zigun jendeak eta aita ere baten bati lagundu egin behar.

Pagoagako eskolara oinez, Merkutik barrena.

Ibiltari ona behar zuen, derrigor, Etxolaberrin bizi zenak. Juanitoren bertsoak dioten bezala: *handik ez zegon ateratzerik, kotxian edo trenian. Bide nagusia Olazartik omen zen, erreka*

bazter-bazterretik, eta uholdeek erabat hondatu omen zuten. Horregatik, gurasoek ez omen zien uzten handik ibiltzen, eta Merkutik barrena joaten ziren Pagoagako eskolara. *Nire aurreko anaiak Pagoagara joaten ziren, egun erdia bakarra, egunero, astelehenetik larunbatera. Larunbatean ere bai, orduan. Ni 8 urterekin hasi nintzen. Eta ni egun osoa. Bederatzitarako joaten ginen, ordu eta erdiko bidea eginda, Merkutik barrena. Minatik atera eta Merku. Merkutik jaisten ginen, beheko erreka zokora. Eta handik osterara, Bidetxabal, eta Pagoagara jaitsi. Merkutik, aldeena. Eta gero bazen beste bidea, Olazarren barrena, baino hura peligrrosoa zen. Baina nekerik gutxienekoa bai, nekerik ez zuen hark. Ur asko zuen orde, eta ez ziguten uzten. Erreka toki askotan pasa behar zen, pasorik gabe, eta etxean, ez ziguten uzten.*

Bazkaldu bertan egiten zen, Dionisi Lizeaga maixtraren etxean, eta gero, arratsaldean berriz etxera, ilundu baino lehen. Ni bakarrik joaten nintzen. Bernadinak ordurako bukatua zuen 'karrera', eta Manuelek ere bai. Gazteak berriz Fagollagakoan ibili ziren, Kaxildakin. Ni bakarrik izaten nintzen, eta arratsaldean, negu partean eta, ordubete lehenago ateratzen nintzen, ilundu egiten zuelako. Eta nik Pagoagan jaten nuen. Potajea etxetik ekartzen genuen, eta han egosi. Eta ayuntamientoak ematen zidan, txorixo mutur bat hortxe... 3 bat zentimetrokoa, eta urdai zurizuria. Orain ez da jan ere egingo horrelakorik, noski! Nik gustura jaten nuen. Hiru urte egin nituen han. 8 urterekin hasi, eta 11rekin bukatu, karrera. Eta lanera joan nintzen.

Lehenengo nagusia, Tiburtzio Iraguen, txintxo ordaintzen zuena.

Tiburtzio Iraguen zuten lehenengo nagusia. 1931 bitartean, bera azaltzen omen zen, zaldiz, urtean behin edo. Hark txintxo ordaintzen omen zien. *Lehenengo hori Bilbokoa zen, euskalduna. 'Calle Carnicería vieja, número 18'; han bizi omen zen. Nagusi horrek ideia omen zuen minak eta fabrika berriz martxan jartzeko, eta ez hori bakarrik, baita beherago zentrala jartzeko ere. Nagusiak zentrala beherago egiteko ideia izan behar zuen. Kartolako presa den horretan. Eta goien kanala bukatzen den tokitik aritu ziren, lehenengo kanala luzatzen, beste 200 metroan, saltoa handiagoa izateko. Baina ahaztu ziren kontu haiek ere.*

Azken bost urteak kobratu gabe, nagusi berriarekin.

Gogorrak pasa zituzten azken urteak, batez ere, azken bost urteak. Iraguen horren ondoren, beste nagusi batek hartu omen zuen mina, Felix Gorospe izeneko batek. Harekin liskarrak izan omen zituzten. Hark hara azaltzerako pasa omen zituen hiru bat urte edo. Gero bi aldiz azaldu, eta joateari utzi zion; eta okerrago dena, ordaintzeari. *Iraguen hori gordeko zen, hortxe, 1931n edo horrela. Eta gero, beste bat azaldu zen. Kojo bat zen, erdalduna, bizkaitarra hura ere. Eta bigarren horrek bi buelta bakarrik egin zituen ni gogoratzen naizela. Lehendabiziko azaldu zenean, gure aitarekin kriston diskusioak jo zituen hark! Paper kontuak-edo, bazuten zerbait. Azken urteetan roxik kobratu gabe egon ginen.*

1938an azaldu zen txatarrerora. Hark eramane zuen fabrikako burdin guztia, eta hark ordaindu zituen aurreko zorrak; ez denak. Gero, handik urte pare batera (1938) azaldu zen txatarrerora. Ordiziakoa, Jesus Etxezarreta. Eta horrek ordaindu zituen 15.000 erreale, aurretik zor zirenak. Zor ziren guztiak ez, ze azkenean ez genituen denak kobratu! 15.000 erreale badakizu zenbat zen. 15.000 erreale 3.750 pezeta ziren. Haiek kobratu zituen.

Txatarra guztia idiekin atera zuten; Pikoagako frontoira eramane, eta han pilatu. Hiru hilabete pasa zituzten lan horretan. Txatarra guztia handik Pikoagako frontoiraino atera zuen Inazio Zerainek, Larre-Gaingoak, idiekin, gurdia kargatuta. Eta bestea han ibili zena Joxe Ramon Errazkin, Añarregikoa.

Aitari esaten zioten, beste nonbait lanean hasten bazen, deretxo guztiak galduko zituela... agoantatzeko!

Urterik gogorrenak azken haiek izan ziren altxotarrentzat. Dirurik kobratzen ez, eta lana galtzeko beldurrez, ezin omen ziren handik mugitu. Beraiek ere zorrak egiten hasi, baratza eta bi behirekin eutsi zioten urte haietan. Aitari esaten zioten, deskuiduan beste nonbait lanean

hasten bazen, deretro guztiak galduko zituela... agoantatzeko! Pagoagan egiten genituen enkarguak, eta denak zorrak genituen. 55 duro uste dut. 55 duro orduan diru asko zen! Pagatzeko dirurik ez, eta gure aitak hangoari: 'Besteik ez bada, behia! Behia emango dizuegu!' Eta handik hurrengo egunean behiaren bila. Eta behiaren bila badatoz, eta hain zuzen, behiak pixa odoletan egiten... Gaitza zeukana; eta hurrengo egunean behia entregatu. Eta berriz ere zorra. Ez dakit noiz pagatuko ziren. Bukaeran, seguru asko».

'Gordua', Aranon.

Urte beltz haien aurretik zorte pixka bat izandakoak ziren familian, eta hari esker iraun zutela dio Luisek. Aranora loteria suertatua bazen, 1927 urte inguruan, eta guri tokatu; 'Gordua' gainera. Eguberriarako hartua genuen zenbakia. Eguberritan, bota adina erori. Batzuk hartu egin omen zuten. Eta gureak berriz, dena bertan utzi, eta harekin Erregeetakoa hartu, eta Erregeetan 3.000 pezeta suertatu. Gutxi izango zituen, baina 'Gordua' erori, eta 3.000 pezeta. Hari eskerrak pasa genituen hurrengo urteak. Gainerakoan, nola jan behar zen ba, pagatze ez eta?

Aranora enkargutara, Etxolaberri baserritik.

Minen gainean bazituzten bizilagunak markotarrek. Etxolaberri baserria goian dago, minen gainean, eta hara nahiko maiz joaten omen ziren. Han enkarguren bat egitera, edo Aranora joateko, erdibidean geratzen zelako. Aranotik merkexeago ekartzen omen zen genero klase bat. Merkexeago ekartzen zen Aranotik ardoa-eta... tarteka hara joaten ginen. Bidea esango dizut: Etxolaberrira bide ona zen, minatik. Hara joan, eta handik goiko gainera igo eta, erreka zokora jaisten ginen, Ipiñabar baserriko bazter hartan. Eta osteria handik gora igo behar!.

Epelera, pozak zoratzen.

1938an, txatarra atera zutenean, mina utzi eta Epelen hartu zuten bizilekua altxotarrek. Poz ederrarekin joan zirela dio Luisek. Zer esango dizut ba, hango bizimodua tristea zen. Gero, 1938an, mugitu egin behar, eta hona etorri ginen bizitzera, Epelera. Poz ederra bai guk. Amak ez. Amak atera zen garaian negar egiten zuen. Bista oso bajatua zeukan, eta beti han ohitua. Guk poz ederra! Etorri eta segidan, nire anai gazteak amistadea egin zuen Antonio Lizeagarekin. Eta bestea Luis zen, haren anaia. Epeletxeberri tabernakoak bi anai ziren, gure edade modukoak, eta haiekin egin genuen amistadea. Eta gero hor lehengusuak ere bagenituen eta... ondo bizi ginen.

Oraintxe bizi naiz sekula bizi izan naizen ondona.

Epelen harrobian hasi zen lanean, 11 urterekin. Hura itxi eta 14 urterekin basora. Gero 24 urterekin sartu zen Reposan, Policloron... eta hor egin zituen laneko azken 37 urteak. Orain 23 urte daramazki jubilatuta, eta ondo bizi dela dio Luisek. Primeran bizi naiz. Sekula bizi izan naizen ondona. Hobbya ere ba omen du, diru gutxirekin egiteko modukoa. Ibili. Goizean jaiki, etxeko lanen batzuk egin, eta andrea eta biak paseatzera ateratzen gara. Eta arratsaldean bakar-bakarrik ibiltzen naiz. Gero eta gero motxago egiten dut e! Zer nahi duzu ba 83 urterekin!.

Sasoi ederra dauka oraindik Luisek. Baita memoria ere. Etxolaberriko minetara geroztik ere joan dela dio, arrantzara-eta, bestela. Azkena orain dela bost bat urte. Orain, bidea dagoen bezala, ez omen da gehiago bueltatuko. Gogoan daramazki hango kontuak, eta eskertzen diogu, guretzat ere berritu izana.

Etxolaberriko fabrika urak mugitzen zuen, Urumea bailarako beste asko bezala. Ibaiaren ezker-eskubi, industria oparoa izan du Urumeak. Goi aldeetan, XX. mende hasiera arte; ura eta egurra zegoen tokira joan behar zelako energia bila. Etxolaberri dugu industria zaharraren azkenetako testigua, fabrikak naturari eskua derrigor eman behar zion garaikoa.

Lau pisuko fabrika.

Lehenengo plantan ziren, turbina, harria bereizteko 4-5 tolba burnizkoak, eta silo handi baten antzeko gela bat. Dena hara botatzen zuten azkenean. Tolba bakoitzak zinta transportadora bat zuen. Silo horretara zegoen zinta, poteekin zen.

Eta orain bigarrengora igoko naiz. Bigarren hori atzera erretiratuta zegoen, atzerago bezala. Bigarrenean errota handi bat dago, danborraren estilokoa, bueltaka ibiltzen dena. Bi metro-edo izango zituen, eta barruan bolak zituen, batzuk handiak, 4 kilokoak, eta besteak txikiak. Errota horrek barruan, bazterrean uhekoak zituen, apalak bezala, bolak igotzeko; eta bola haiekin batera harria igotzen zen. Bola haiek harria txikitzen zuten, han gora igo eta erortzean.

Hirugarrenera igoko naiz orain. Hori bigarrenaren parean zen, lehenengotik erretiratua. Hura oholezkoa zen. Eta hor mahai antzeko bost metro luzeko sarea zen. Horrek egiten zuen, larria (puska handia) lehen esandako errotara bota, eta xehea (puska txikia) tolbara.

Eta laugarrena eta azkena, oraindik eta atzerago erretiratua zegoen. Han zen errota. Han hasten zen harria txikitzen. Etxola moduko bat zen, 4-5 metro zabalekoa. Hara, karriletan ekartzen zen materiala, minetatik. Eta goiko minetatik berriz, kableekin. Goien baziren hiru mina, 200 metrora edo: San Eloi, San Blas eta San Jose. Hor zen kable jiratorioa; bagoia hutsa gora, eta betea ekarri.

Ardatz nagusia, fabrika batetik bestera pasatzen zuena.

Ardatz handi bat zen behean; turbinatik hasi eta fabrika guztia pasatzen zuen. Ardatzaren azkeneko zatian, sare bat zuen, danbolinaren estiloan, eta hark zeukan aurrenetik zulo estua eta gero hazitzen-hazitzen-hazitzen... lau bat metro izango zituen. Ardatz hori ibiltzen zen uraren indarrarekin, eta denetara separazioa handik zegoen. Korrea guztiak batera eta bestera, handik separatzen ziren. Korrea bakoitzak bi polea zituen, bat fijoia eta bestea ibiltzen zena. Gelditu nahi zenean fijoari tira, eta martxan jartzeko, ibiltzen zenari bultza!

Materiala goiko errota ondora ekartzen zen. Errotara bota, eta txikitzen hasten zen, eta apartatzen: larria aieka batera, eta xehea bestera. Gero hurrengora, beste sare moduko horretara. Handik beste errotara, bolekin esan dudan horretara. Eta handik behera, lehenengo pisura. Eta

azpi-azpi horretan tolba nagusia zegoen. Haraino iristen zen larri guztia, eta ostera, behetik hartu eta goraino botatzen zuen, poteekin zegoen korrea hark. Egurrezko kajadera batean zegoen hau sartua. Rodilloen laguntzarekin botatzen zen handik.

Benta Mudaz, bi pisu eta bi sukaldeko etxea.

Fabrika eta etxea aparte ziren, 100 metro ingurura. Etxe hori ez omen dago orain. Fabrika dago, zu hara zoazela eskubitara, eta gure etxea, handik 100 metrora, ezkerretara. Desagertua dago orain.

Bi edificzio ziren: bat etxea, eta bestea fabrika

Bi sukalde zituen, eta atzean, sutegia, eta almazena. Sutegia edo erroterotegia. Erremintak eta preparatu, eta egin ere, han egiten ziren denak. Eta gero almazenean egoten ziren, atxurrak-eta.

Etxe handia zen. Bi sarrera zituen, bat behetik eta bestea goitik. Erditik, eskailerak ziren gora. Goien zituen sei gela, eta langileak lo egiteko sala. Sei gelatako bat zen ofizina, nagusiarena. Beste bost gela horiek lo-gelak ziren. Jakina, kategori handienekoek lo egingo zuten han; nagusiak eta.

Konpleto zegoen Etxolaberri. Etxea, fabrika... eta polborina ere ba omen zen etxe atzean. Hor zulo handia zegoen etxearen atzean. Polborina. Guk ezagutu genuen. Han ibiltzen ginen jolasean, kartutxoak eta... dinamitak eta... pistoiak eta... denetik izaten zen han.

Minetatik ateratzen zituzten, batez ere: eztainua, beruna eta galena argentiferoa (zilarra lortzen da hortik). 15 mina-zulo egin zituzten, eta itxura denez, gehienak XIX. mendekoak dira, eta XX. mende hasierakoak. Bi mina-zulo ordea, besteak baino beherago daudenak, zaharragoak direla diote adituek; nabarmen uzten omen dute hori zuloa egiteko teknikek. Litekeena da, erromatar garaikoak izatea. Gainera, bi mina zahar horien ondoan, bada zubi bat, Olaberriko zubi zaharra, erromatarren garaikoa izan litekeena. Horrek guztiak oraindik balio handiagoa ematen die mina hauei (Felix Ugarte espeleologia elkarteak ikertu zituen mina horiek, 2003an, Hernaniko Udalaren babesarekin; ikerketa hartan adierazten da, erromatar garaian esplotazio bat izan zitekeela Etxolaberrin).